

ELGERA



BERBETAN: **PEIO RIVAS** HARROBIA IKASTOLA MARRAZKIAK: **Ibarrekolanda BHI**

ERREPORTAJEA: **GURE ONDAREA BIZIRIK MANTENTZEN**

AURKIBIDEA

- 3 ERREPORTAJEA**
- 4 ELKARRIZKETA**
- 6 GURE ONDAREA BIZIRIK MANENTZEN**

- 8 EGUN BATEZ ARTZAIN**
- 10 ARTIKULUA**
- 12 EMAKUMEAREN EGUNA**
- 14 IBARREKOLANDAKOEN ARTE LANAK**
- 15 BERTSOAK**
- 16 ELKARRIZKETA PAULA REVUELTAREKIN**
- 18 ERDI AROKO AZOKA**
- 20 ESFORTZU LINGUISTIKOA DBH 2KO ZIKLOAN**
- 22 GORANE AYESTA MAIDAGAN- GARABIDE ELKARTEA**
- 24 DENBORA PASAK**

ELGERA

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kirikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B02ko Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programa, Berbaizu euskara elkarte eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 3730 Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com



ERABAKIEN GARRANTZIA



Gaur egungo erabakirik garrantzitsuenetakoa bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) hartu behar dugu; izan ere, hezkuntza-bidean zer egin nahi dugun erabakitza behartuta gaude, eta gure etorkizuna erabaki horren mende egongo da.

Hasteko, txikiak garenetik, hazten eta gauzaz kontziente egiten goazen neurrian, erakutsi digute unibertsitatera joatea soilik dela baliozko aukera bakarra, eta erdi- edo goi-mailako ikasketak, adiz, bigarren mailakoak ez direla: zoritxarrez, gustuko duzun unibertsitateko gradua edo nahi duzun unibertsitatera sartu ezean hartu beharreko bidea.

Zorionez, gaur-gaurkoz, unibertsitatez kanpoko aukera horiek gero eta indar handiagoa hartzen ari dira ikasleen artean, eta ikasle askoren aukera nagusi bihurtu da. Horiek horrela, gradu mota gehiago sortzen ari dira, mota guztietako ezagutzak eta lanak biltzen dituztenak.

Horiek horrela, DBHko hirugarren mailara iristen garenean, ikasketak zientzia, letra edo giza zientzietako adarretatik jarraitu nahi ditugun erabaki behar dugu, baina DBHko laugarren mailan hartzen dugun erabakiak bide batetik edo bestetik bideratzen gaitu. Hamasei urterekin soilik erabaki behar dugu hurrengo bi urteetan ezagutza-adar batetik edo bestetik joan nahiago dugun. Erabaki horrek eragina izango du, aurrerago ikasi beharrekoa oztopatu edo lagundu egin ahal izango duelako.

Egia esateko, hamasei urterekin norberaren etorkizuna erabaki beharra ez da oso eraginkorra; izan ere, ikasle asko damutu egiten da, ildo bateko edo beste batxilergoko ikasketez, aukeratutako erdi edo goi mailako adarraz edota hau-

tatutako unibertsitateko graduaz. Ikasketak hasi bai, baina bertan behera uzten dutenak ez dira gutxi, aurreikuspenak bete ez zaizkielako edo konturatu direlako ez zela benetan egin nahi zutena.

Gaiarekin jarraituz, gurasoek seme-alabak behartzen dituzte mota jakin bateko ikasketak egitera, uste duelako hori dela aurrerago ondo bizitzeko aukera, kontuan hartu gabe ea gustatuko ote zaien edo benetan beste zerbaitekin egin nahi ote duten. Bestalde, sarritan, irakasleek irakasgaiak nola ematen dituzten, nola azaltzen dituzten edo, besterik gabe, bere azalpenen ondoren nola ulertzen duen norberak, eragina izan dezake etorkizuneko erabakietan.

Horrez gain, Batxilergoko bigarren mailako plangintza selektibitateari begira dago; ikasturtea hasten denetik, irakasle guztiak azterketa horretara bideratzen gaituzte, bestelako ikasketatan sakondu gabe. Ondorioz, ikasleek aukera bideragarri bakarra unibertsitatea dela sinetarazten dute eta zailtasun gehien dituzten ikasleei soilik proposatzen zaizkie lanbide heziketako ikasketak. Bestalde, DBHn sartzeko garenetik, oso ondo ohartzen gaituzte DBHn eta Batxilergoan lortzen dugun batez bestekoa oso garrantzitsua izango dela, selektibitatekoarekin batera, gradu bat edo beste aukeratzeko.

Amaitzeko, bakoitzak bere ikasketei dagokien zer egin nahi duen kontuan hartu behar da beti (dena delako erabakia) eta ez diogu erreparatu behar besteek diotenari. Hala ere, aholkuak beti izango dira ongi etorriak, bide zuzenean gabiltzan edo ez ziurtatzeko. Era berean, garrantzitsua da egin nahi duzunaz gozatzea, handiusterik gabe: ikasketa guztiek dute bere balioa.

“Magia hizkuntza unibertsal bat da zure ametsak publikoarekin partekatzeko”

Peio Rivasek magian aurkitu zuen bere pasioa, futboleko lesio baten ondoren. Got Talent-etik Harrobia ikastolara igaro zen, eta bertan Marketina eta Publizitatea ikasten ari da.

Noiz sentitu zenuen lehen aldiz magiarekiko duzun grina? Zerk eraman zintuen arte honetan murgiltzera?

Futbol lesio batek magiaren mundura eraman ninduen. Etxean aspertuta nengoela, azti bat ikusi nuen Got Talenten eta liluratuta geratu nintzen. Magia ikas zitekeela jakin nuen, eta Bilboko akademia batean hasi nuen prestakuntza. Magia jaialdi batean, Imanol Pérez de Albéniz mago gasteiztarra ezagutu nuen. Bere espezialitateak, manipulazioak, liluratu egin ninduen. Eskolak eskatu nizkion Instagramen eta berak onartu egin zuen. Urteetan zehar, berarekin hezi nintzen eta magia ikuskizun bat garatu nuen.

Lehiaketak, telebista-programak... Nolako da mago baten profesionaltasunerako ibilbidea?


Artistaren bizitza errusiar mendi bat da. Egun batean gailurrean zaude, eta hurrengoan, ahaztuta. Gurasoek oinak lurrean mantentzen irakatsi zidaten. Sinestezina da ametsak betetzea: umetan ikusten nituen programetan aritzea edo nire idoloekin lehiatzea. Onena nire pasiotik bizitzea da. Duela 5 urte ez nuen sinetsiko!

Euskadin zailtasun gehiago daudela esango zenuke?

Espainia magiaren munduko potentzia bat da, munduko azken hiru txapelketetatik bi irabaziz. Espainiako karten eta psikologiaren magia munduko onena da. Manipulazioan, nire espezialitatea, ekialdekoak dira nagusi, korearrak bereziki. Oso espezialitate teknikoa da, eta egunero asko praktikatzea eskatzen du. Asiarrak oso diziplina-tuak dira!

Zure ibilbideko zein momentu garrantzitsuenetakoak partekatuko zenituzke gurekin?

Egia esan, niretzat denak izan dira une bereziak. Nerbio ikaragarriak sentitzen nituen eta dar-dar batean nengoen nire lehen emanalditik irabazi nuen lehen magia-sariraino, baita Got Talent España-n egindako agerpena ere. Bi une berezi nire ibilbidean: Bira Mexikon 20 urterekin: Nire magia milaka lagunekin partekatu nuen eta Mexikoko kultura ezagutu nuen. San Marinoko Nazioarteko Magia Saria: Lehen saria irabazi nuen ama aurrean nuela, oso une hunkigarria.



Zerk inspiratzen zaitu magia lantzen jarraitzera, eta zein da eremu horretan duzun motibaziorik handiena?

Motibazioa garrantzitsua da, baina diziplina funtsezkoa. Entseatzak, gogorik ez duzunean ere, bereizten zaitu. Nik beti gogoratzen ditut nire ametsak, eta neure buruari galdetzen diot ea zer pentsatuko lukeen nire niak etorkizunaz. Nik uste dut horrelako gauzek bereizten gaituztela; norbaitek zerbait proposatzean, lortzen duen ala ez. Bestalde, beti gogoan ditut lortzea gustatuko litzaizkidakeen ametsak.

Nola definitzen duzu zure estilo propioa, edo zein elementuk bereizten zaituzte?

Galdera hau egiten didatenean, magia freskoa eta mende honetakoa egiten duen norbait naizela erantzuten dut. XXI. mendeko magoa naiz. Nire magia freskoa eta egungoa da, untxi edo usorik ez. Eguneroko objektuak erabiltzen ditut ilusio harrigarriak sortzeko. Publikoa gero eta zorrotzagoa da, eta garai berrietara egokitu beharra dago. Askok gustatzen zait magia eguneratzea eta jendearengandik hurbilago jartzea.

Orain, Marketin eta publizitateko goi-mailako zikloa egiten ari zara Harrobia Ikastolan. Nola bultzatuko du horrek zure ibilbide profesionala?

Dudarik gabe. Marketina funtsezko tresna da nire magia-negoziorako. Harrobia Ikastolan, marketineko tresna garrantzitsuenak erabiltzen ikasten dut; bezero berriak erakartzen dituzten iragarkiak sortzen ditut, ikasitakoa nire negozioan aplikatzeko aholkularitza pertsonalizatua jasotzen dut... Harrobia Ikastolari esker, nire magia-negozioa hazten ari da.

Nola uztartzen dituzu ikasketak zure jarduerarekin profesionalarekin?

Mago gisa denbora kudeatzea erronka bat da. Trikimailuak ikasi eta show-ak egiteaz gain, promozionatzen jakin behar da jende gehiagorengana iristeko, edukia igotzeko, bezero potentzialak lortzeko etab. Ondo antolatzen ez bazara, erotu egin zaitezke. Nik neuk Notion erabiltzen dut egunerokoan zorrotza izateko, eta batzuetan libreta bat ere erabiltzen dut zeregin garrantzitsuenak zatitzeko.

Magia hizkuntza unibertsala da ala magia egiteko hizkuntzak menderatzea ezinbestekoa da, baita euskaraz ere?

Magiak ez du mugarik. Berdin dio zein hizkuntzatan hitz egiten duzun, publikoak ilusioa ulertuko du. Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta aukera gehiago izango duzu lan egiteko. Baina magia salbuespena da: musika sakonarekin desagertzen den karta edozein hizkuntzatan ulertzen da. Magia pertsonak batzen dituen hizkuntza unibertsala da.





EGILEAK: Enara Renovales Alayagoicoa, Olaia Santos García, Unax Sora-

Aurten gure iraganari begiratzea erabaki dugu, Euskal Herriko historian zehar emakumeok pairatu dugun zapalkuntza patriarkala ikusaraztea. Halaxe, zapalkuntza horren sustraiak eta bidea ezagututa, ez dugu atzerako urratsik emango amestutako gizarte horren eraikuntzan, non berdintasuna gizaki guztiok barneratuta izango dugun. Izan ere, zirgariak dira institutuan margotu dugun muralaren protagonistak. XIX. mendearen amaierara garamatzaten emakumeak dira, lan basatia egiten zutenak. Egindako lanagatik gutxi kobratzeaz gain, gaitzetsi egiten ziren. Ikargarrizko zapalkuntza patriarkala: Euskal Herriko industria-iraultzako langileen artean emakume haiek azkenak ziren. Hemen batzen ditugu oroimena, sufrimendua eta askatasuna, Walter Benjaminen hitzak oroitzean: “historiaren sufrimendua askatuz lortuko dugu aske izatea”. Hau da, emakume haiek gogora ekartzean eta haien sufrimendua aitortzean, zapalkuntza desagerraraziko dugu. Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Ibarrekolandako institutuan egindako ekintzen artean, Batxilergo lehen eta bigarren mailako ikasleek Rosa eta Ana Iziz Elarre ahizpen azterketa bat entzun zuten, non XIX. mendeko emakumeen egoera latzaz mintzaten ziren. Ikerketa ez zen batere erraza

izan, zoritxarrez, (harrigarria ez den moduan), emakume hauen bizitzetako arrastoak ezabatuak izan baitira. “Historia de las mujeres en Euskal Herria. A las puertas de la emancipación, siglo XIX” izenburu luzeko liburu honetan, emakume euskaldun askoren zoritxarreko eta galdutako bizitzaren ikuspuntu desberdinak azaleratzen dituzte. Lantzen diren gaietatik gehien harritu gaituen bat, emakumeek animalientzat prestatua zegoen lana bete behar izan zutela da. Zirgariak dira haiek. Zirgariak, Bizkaiko portuetara iristen ziren itsas-ontziak lurreratu behar zituzten, soka batzuetatik tira eginez. Animalientzako lana zen hau, baina hauen mantenua emakumeena baino garestiagoa zela ikustean, emakumeekin ordezkatea erabaki zuten. Prostituzioaren gaia ere lantzen dute. Hau, antzina eta gaur egun ere emakume askoren errealitatea da, eta nabarmendu nahiko genukeena da Ana Izizen erantzuna da ea prostituzioa gizartean onartzen zen galde-tu ziotean: ‘Sí se aceptaba, porque la prostitución era condenada en público pero totalmente aceptada en privado’. Oso esaldi tristea da. Emakume haiek guztiak, garai hartako eta eguneko ‘emakume ahularen’ estereotipoa guztiz zapaldu zuten, ahalegin fisiko

handia eskatzen zuten lanak eginez, askoren axolagabekeriak edo mespretuaz Era berean, egun honen garrantziaz hausnartzeko antolatutako jardueren artean, DBHko ikasleek “Quiero ser como Beckham” filma ikusteko aukera izan zuten. Film honek emakume kirolarien historiaz, eta nagusiki gizonen mundu batean ametsak lortzeko borroka hitz egiten du. Horrela, ikasleek generoko oztopo sozialak gainditzeari buruzko gogoeta egin ahal izan zuten. Halaber, atsedendaldian bi performance oso interesgarri izan ziren. Batetik, irakasleak “zirgariak” bezala jantzi ziren, eta aurre egin beharreko lan-errealitate gogorra nabarmentzen zuten eszenak irudikatu zituzten, haien lan gogorren garrantzia azpimarratuz. Bestetik, hainbat ikaslek eta irakaslek emakume ausartei (senideak, lagunak...) buruzko kontakizun inspiratzaileak partekatu zituzten, ausardi handiz beren garaiko arau sozialei aurre egin zitelako. Horrez gain, arte plastikoetako batxilergoko bigarren mailako ikasleek 8M egunerako zenbait kartel sortu zituzten. Kartel horien helburua, batez ere, ikasle guztiak proposatutako

jardueretan parte hartzea animatzea zen, ikastetxeko “OHIU” talde feministaren laguntzarekin. Beraz, egun interesgarria eta polita izan zen, denok partekatzen dugun ezagutzaz, artez eta kritikaz betea, eta emakumeen borrokaren aldekoa.

Azkenik, Ibarrekolandako talde feministak erabaki genuen, klaseak amaitu ostean, ordubete gehiago geratzea atsealdea margotzeko eta marrazkia ahokatzeko. Zer hormatan egingo genuen erabaki ondoren, lehenengo, horma lixatu genuen, eta gero zurizko geruza batzuk eman genizkion marrazkia ahokatu ahal izateko. Mural hau margotzeko institutuko hainbat ikaslek parte hartzea erabaki genuen, hau da, klase bakoitzeko bi ikaslek eta horrela, horma-irudiaren denon artean margotu genuen.



EGUN BATEZ ARTZAIN

Kaixo Elgeratarrok, artikulo honetan kontatuko dizuegu, gure goiza Antxon artzainarekin.

Pasatu den hiruhilekoan, Areatzako baserri batera joan ginen 2. eta 3. ziklokoak artzain baten bizitza ezagutzera.

Areatzara heldu ginenean bertako begiraleak komentatu zuen Antxonen baserria ez zegoela herrian eta bertara heltzeko “aldapatxo” bat igo behar zela. Aldapa oso luzea izan zen baina paisaia ikusgarria .

Heldu ginenean Antxon eta bere aita gure zain zeunden. Kortara sartu baino lehen azaldu zuen berari artzaina izatea beti gustatu zaiola baina bizitza oso gogorra dela, baserriko lanak ez direlako gelditzen asteburuetan, eta horregatik jende gazteak ez zuela artzain izan nahi. Artzainen arazo handiena aisiarako denbora ez izatez aparte , otsoa da. Otsoak , gero eta sarriago, baserrietara jaisten dira eta ardiak hil egiten dituzte gose direlako. Artaldea defendatzeko, Antxonek Mastin txakurrak ditu.

Korta barruan azaldu zuen nolakoa zen artaldearen eguneroko bizimodua eta ardiaren esnearekin Idiazabal gazta egiten dutela. Horretarako arkumeak hilabete bakarrik egoten dira amarekin. Gazta egiteko epea, azarotik ekainera arte da. Eta elaborazioa oso artsanala izan arren baldintza sanitario guztiak betetzen dira temperatura, denbora eta hezetasuna kontrolatzen.

Artzainen bizitza ikusi eta gero baloratu behar dugu haien egiten duen lan gogorra eta eskerrak eman aldi berean natura eta ingurunea zaintzen dutelako.

Orbegozo eskolatik, mila esker denoi!




BALIOETAN ERE GAUR ETA BIHARKO PROFESIONALAK PRESTATZEN

Egilea: Ainhoa Ituarte

Txurdinagako Lanbide Heziketako Zentru Integratuan, Administrazio eta Finantzako goi mailako zikloan, enpresa pribatu zein publikoko prozesu desberdinetan lan egiteko gaitasunak eta trebeziak eskuratzeko gunea izateaz gain, ikasleak "eraldatzeko" gunea ere izatea dugu helburu.

Hori dela eta, Balioak 4.0 Prestakuntza proiektua barnesartuta dugu gure ikasleak profesional onenak izateko prestatzeaz gain, giza, gizarte eta herritar balioetan, etorkizun hobe, justuagoa, gizatiaragoa eta jasangarriagoa eraiki dezaten pertsona guztientzat. Balioak transmititzeko gakoak, gure zikloan erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratibo eta aktiboan balioak "dastatzea" da oinarria. Dastamen horren euskarri nagusia Giza baliabideak eta Erantzunkizun Sozial korporatiboa da.



Proiektuaren estrategia hiru ataletan banatzen da. Lehenengo, ikasle bakoitzaren erantzunkizunetik abiatzen gara, bakoitzaren marka pertsonala landuz. Zer aportatu dezake bakoitzak bere inguru hurbila hobetzeko? Familian, auzoan, lagunen artean, gelan, enpresan. . Gure ikasleak enpresetara doazenean norberaren identitatea adierazten duen CV aurkezten dute eta honen barruan zer nolako balioetan oinarritutako pertsonak diren adieraztea eta horren ekimean jardundako ekintzak burutu izatea, enpresak oso positiboki baloratzen dute.

Bigarrenik, balio konkretu hauek lantzen dira: elkartasuna, inklusioa, interdependentzia eta ekimena.

Azkenik, enpresaren jardueran murgiltzen gara eta honek izan dezakeen eragina antolakuntzan, gizartean eta jasangarritasuna eta ingurumenean. Enpresaren praktika onak, enpresa etika garatzea, finantza-entitate etikoak kontratatzea, baliabide naturalen kudeaketa egokia,.. Horretarako dinamikak, taletarrak, agente desberdinen esperientzia partekatzea,..egin ditugu analisia,

elkarrizketa ta inspirazioa sustatuz. Konpromiso soziala eta pentsamendu kritikoa landuz.

Nitik abiatuta, Kontsumo arduratsua daukat?, zer eta zenbat erosten dut? non erosten dut?; ezberdina izateko eskubidea dut, auzolanean parte hartzen dut?, ekonomia zirkularra bultzatu; non inbertitzen dut nire dirua? ze finantza-entitatetan daukat nire aurrezkiak? Enpresan lanean hasten naizenean, non lan egin nahi dut? Nolako antolakuntza izatea espero dugu? Ze balioetan oinarritutako enpresa izatea gustatuko litzaidake?

Ikasleek era positiboan baloratzen dute proiektu hau zikloaren ikaskuntza estrategian barnesartuta egotea. “Interesgarri eta beharrezkoa”, “Kontzientzia pizteko lehen txinparta” argudiatzen dute. “Enpresa batzuk marketin estrategia bezala erabiltzen dute” “Gelan lantzetik ekintzetara pasatzea falta da” eransten dute.

Irakasle-taldeak Balioak 4.0 proiektu honekin pertsonak (ikasleak eta irakasleak), Lanbide Heziketako zentrua eta gizartea eraldatzearekin irmo jarraituko dugula argi daukagu.

Eduardo Galdeano idazlea eta kazetariak esan zuen bezala:

“Jende txiki asko leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake”



ren zientzialariak edo idazleak gizonezkoak dira eta horren ondorioz emakumeak egiten zituzten lanak ezezagunak dira ikasle askorentzat, baina, zorionez, liburu berrietan emakume gehiago agertzen dira. Ekintza honekin eta beste hainbatekin ikasleek emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak murrizten dituzte.

AHOTSAK ALTXATZEN: BERDINTASUNERANTZ BIDAIA FEMINISTA

Lana aurkitzea askoz zailagoa da emakumearentzat gizonarentzat baino. Gainera, kategoria baxuko lanpostuetan eta ahulezia-egoeran egiten du lan. Hortaz, munduko biztanleria aktiboan duten parte-hartzearen egungo indizea %49ra hurbiltzen da. Gizonezkoena, berriz, %75koa da. Emakumeek munduko legebiltzar-aulkien % 24 baino ez dute hartzen. Udaletan egoera are larriagoa da, alkateen %5 baino ez dira emakume. Ildo horretatik, 153 herrialdek emakumeak ekonomikoki diskriminatzen dituzten legeak dituzte. Herrialde horietatik 18tan, senarrak beren emazteak lan egitea eragotz dezakete legearen bidez. Gainera, eskualde eta sektore guztietan, emakumeen soldata gizonena baino %24 txikiagoa da. Hori dela eta, 781 milioi pertsona heldu analfabetoen ia bi heren emakumeak dira, eta ehuneko hori konstante mantendu da azken bi hamarkadetan.

Edonola ere, emakumeen eskubideen aldeko borrokan izandako lorpen eta aurrerapen esanguratsuak izan dira azken urteotan.


Hala nola, Genero Berdintasunerako Legeak: 2018an, Islandiak enpresetan soldata-berdintasunerako legeria ezartzen lehen herrialdea bihurtu zen; Parte-hartze politikoa: 2019an, Espainiak mugari garrantzitsua lortu zuen, haren gabinete paritarioan, ministro-gizon eta emakume kopuru bera baitzuen; Hezkuntza eta Osasuna: Ruandako gobernuak lege berezi batzuk ezarri ditu neskak lehen eta bigarren hezkuntzan duten parte-hartzea handitzeko. Horrek hobekuntza nabarmena ekarri du emakumeentzako alfabetatze-tasetan eta hezkuntzarako sarbidean.

EMAKUMEAREN EGUNAREN ONDORIOAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna garrantzitsua da, emakumeek eskubide eta aukera berdintasunaren alde egindako


borroka historikoaren urteroko oroigarri gisa balio duelako. Nahiz eta urteko egun guztietan berdintasunaren alde borrokatu, egun honetan, ekitaldi, kanpaina eta greba handiak egiten dira, eta horren ondorioz gizarteak konpromiso handiagoa hartzen du genero berdintasuna lortzeko.

Emakumearen egunarekin azken urteetan zerbait lortu ote den galdetuta, aurrerapen esanguratsuak ikus ditzakegu, baina baita hainbat erroka ere. Alde batetik, genero-berdintasunarekin lotutako gaiei buruzko kontzientzia publikoa handitu egin da, eta ondorioz, lege eta gizarte aldaketa positiboak egin dira hainbat herrialdetan. Gainera, lehen gizonak nagusi ziren roletan edo zereginetan



emakumeek gero eta gehiago parte hartzen dute eta hori horrelako egunetan ikusgarritasuna ematearen ondorio da. Hala ere, oraindik asko dago egiteko desberdintasunak modu askotan irauten duelako.

Genero-berdintasun osoa lortzeko, funtsezkoa da gatzetatik berdintasuna sustatzen duten jarduerak eskolatan ezartzea; hala nola, hitzaldiak edo dinamikoak diren proiektuak. Horrez gain, gizarteak genero-estereotipoak desagerrarazi behar ditu ahal den neurrian herrialde guztietan. Horretarako, funtsezkoa da soldata-berdintasuna eta bidezko lan-aukerak bermatzea pertsona guztientzat emakumeak lan munduan gehiago sartzeko.



*Egilea: Batxilergo Artistiko Plastikoko ikasleak,
Marrazketa artistikoa eta AGPT ikasgaiko lanak.*



BERTSOAK

Deustuko ikastolako ikasleen bertsoak.

Egileak: Elise Gómez, Erika Bravo, Nile Íñiguez de Onsoño, Izadi Zuberogoitia, Ane Pérez eta Kattalin Urriz.

Notak

Notak berriz ez eman
Deustuko jaietan

Hobe da ematea
gure oporren bueltan
Bestela errieta
dago etxeetan
Nahi dugulako irten
hamabi t'erdietan

Izenak

Irakasle txarrenek
nahi dute nahasi
ez dakite izenak
nolatan idatzi
Nile ez da Elise
ezta ni Garazi
Oraindik ez dituzte
izenak ikasi
gogorarazi jakinarazi
hasi hazi
irabazi nahasi

Agenda

Klasean sartu eta
azterketa pare
Azterketak ahaztu
ditugu ostabe
dena apuntatzea
omen dugu klabe
Nola apuntatu ahal dugu
agendarik gabe

Klaseak

Mateko arazoak
horiek bai problemak
Ariketak zuzendu
okerrak gehienak
ta etxean prestatzen
ditut aurkezpenak
Ostiral bukaeran
klaserik txarrenak

EUSKAL DIGIGELAREN PROIEKTUA

Paula Revuelta Rekaldeberri BHIko Matematikako irakaslea da eta, era berean, Euskal Digigelaren arduradunetako edo kudeatzaileetako bat. DBHko 4. mailako ikasleek egin diote elkarrizketa.



Zergatik eta zertarako sortu da edo egin da Euskal Digigela?

Euskal Digigelaren proiektua pasa den ikasurtean sortu zen eta bere helburua da euskarara erabiltzea beste era batean, hau da, modu ludiko batean eta, beno, konturatu ere egin ginen atsedendietan beste leku bat, beste espazio bat behar zela ikasleentzat eta horregatik sortu da.

Zer da Euskal Digigela?

Ba, Euskal Digigela berezia da eta bertan ordenagailu batzuk daude, Play Station batzuk, bideojokoak dituztenak. Horrez gain, badaude bideoak editatzeko tresnak, Croma egiteko edo grabatzeko gune bat, mikrofonoak eta abar.

Nola kudeatzen da? Nola antolatzen da eguneroko?

Momentua zein den, atsedendietan nahi duena etor daiteke bideojokoetan aritzeko. Taldeak bideoak editatzeko etortzen dira eta irakasle askok erabiltzen dute proiektuak egiteko, ikasgai desberdinetan bideoak edi-

tatzeko, elkarrizketak egiteko, eta abar.

Zuk bakarrik antolatu duzu dena?

Ez, ez, talde bat dago digigela kudeatzeko eta, gainera, kanpoko laguntza ere badugu. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Eraldatze proiektuaren barruan, haiek laguntzen digute euskarazko bideoak edota halako jokoak topatzen.

Ikasle asko joaten dira?

Ba, zein den unea, ze, euria egiten badu gehiago etortzen dira, baina eguraldia ona dagoenean, gutxiago, baina normala da, ezta?

Nola erantzun dute?

Ondo. 1. eta 2. mailako ikasleak gehiago etortzen dira. Uste dut bideojokoak haien-tzat egokiagoak direla, txikiago edo gaztea-goentzat.

Neska ala mutil gehiago joaten da?

Ba, oso galdera ona, ze, gehienak mutilak dira eta buelta bat ematen ari gara nola etor daitezkeen edo nola erakar ditzakegun

neska gehiago eta, jakina, zergatik gertatzen den hori.

Zenbat jolas edo joko daude? Nolakoak dira?

Ba, Play Stationetan 3 joko daude eta ordenagailuetan 12 bat eta kontua da euskaraz egon behar direla bideojokoak, bai euskaraz sortuta, bai itzulpenak egon behar dira deskargatzeko. Horrek, egia esan, asko mugatzen gaitu, batez ere, Play Stationean.

Nolakoak dira?

Ba, denetarik dago. Badaude batzuk estrategikoak direnak edo rol jokoak egitekoak. Beste batzuk futbolekoak dira, besteren bat borrokakoa eta, nahiz eta famatuak ez izan uste dut ondo daudela. Aurreiritziak ere badituzte ezagunak ez direlako edo horregatik gustuko ez dituztelako.

Euskarari dagokionez, zein da helburua?

Lehen aipatu dudan bezala, helburua euskaraz bultzatzea da eta horrekin batera erabilera indartzea, ez bakarrik gela barruan era formalean edo akademikoan, baizik eta egunerokotasunean ere erabiltzea.

Euskara gehiago erabiltzen dute?

Hemen bideojokoak eta bestelakoak euskaraz daudenez, derrigorrez egin behar da; bai ala bai euskaraz hitz egiten dute.

Joko gehiago jarriko dituzue?

Bai, saiatzen ari gara eta uste dut baietz, laster izango ditugula gehiago.

Gustatzen zaizu nola erabiltzen ari diren? Zer hobetuko zenukete?

Ba, orokorrean, neu oso pozik nago, baina beti gaude hobetzeko prest eta ekintza gehiago antolatzeke prest.





MAKETA

Fromistako (Palentzia) San Martin elizaren maketak egin genituen klasean, eta, Erdi Aroko azokaren egunean, 1. mailakoei erakutsi genizkien. Aurkezpenaren hasieran, feudalismoaren historia kontatu genien labur-labur, eta ondoren maketa eta haien atalak erakusten hasi ginen. Horrekin batera, 1. mailako ikasleei elizaren bitxikeria batzuk ere erakutsi genizkien. Oso gustura egon ginen, eta errepikatuko genuke, zalantzarik gabe.

XABOIA ETA KARRETILLAK

Karretillak Olgarekin (Teknologiako irakaslea) egin genituen tailerrean, eta xaboiak Marirekin (Fikiko irakaslea) laborategian. Gure erakusketan xaboiak eta karretillak nola egiten diren azaldu genuen.

Xaboiaren txokoan, xaboa nola egin eta zer produktu erabili genituen azaldu genuen, zenbait moldetan zeuden jarrita, eta erakutsi genuen xaboiak molde horietatik nola atera behar diren. Karretillen txokoan, teknologiako tailerrean egindako zurezko karretillak erakutsi genituen. Horrez gain, karretillak egiteko prozesua azaldu genien: zein zur erabili genuen, zein beste material gehitu genion eta eraikitzeke zenbat denbora behar izan genuen



ERDI AROKO EMAKUMEAK

Erdi Aroko azokaren erakusketa honetan, DBHko 1. mailakoei Erdi Aroko emakume garrantzitsuenak erakusten saiatu ginen. Oro har, interesgarria iruditu zitzaizkien Erdi Aroan, gizonez gain, emakume garrantzitsu eta ezagunak ere bazirela jakitea. Adibidez, Fatima Al-Fihri, lehen unibertsitatea egin zuena; Trotula Ruggierokoa, Erdi Aroko mediku oso garrantzitsua; eta Jacqueline Felice, oso mediku garrantzitsua eta aurkikuntza asko egin zituen.



Errefortzu linguistikoa DBH-ko 2. zikloan

Egileak: Haizea Rosende Rebolleda eta Izaro Izaola Aragón
La Salle Bilbao – DBH 4. Maila

Errefortzu linguistikoaren helburua iritsi berri diren ikasleei euskararen hizkera eta ulermena erraztea da. Laguntza hau jasotzen duten ikasleak atzerritarrak dira batez ere. Programa honek 24-36 hilabete inguru irauten du eta edozein mailatan hasi ahal da jasotzen, gure kasuan, informazio gehiago eskuratzeko, DBH-ko bigarren zikloko zenbait ikasle zein irakasleri elkarrizketak egin dizkiegu, haien iritzia eta programa honetan daramaten ibilbideari buruz jakiteko.

Elkarrizketa DBH3-ko ikasle bati

Elkarrizketatzailea: Noiz hasi zinen errefortzu linguistikoarekin?

DBH 3. mailako ikaslea: Ikastetxera heldu nintzenean jaso nituen lehenengo errefortzu linguistikoko eskolak, hau da, DBH-ko lehenengo mailan, duela ia-ia 3 urte.

E: Zein da zure iritzia errefortzu linguistikoari buruz?

I: Gehien gustatzen zaidana, hizkuntza berri bat ikasteko aukera ematen didala da, halere, nire ustez, 4 urte, gutxiegi dira hizkuntza berri bat guztiz ikasteko.

E: Nola eragiten du ITB ereduak errefortzu linguistikoan?

I: ITBk ez du eragin handirik errefortzuan, normalean euskara eskola daukagunean, nik errefortzu linguistikoa egiten dut hiztegi eta teoria bereziarekin. Aitzitik, ITBrako talde lanen bat egin behar badugu, ikasge-lan geratzen naiz jarduera hori egiteko.

Elkarrizketa DBH 4-ko ikasle bati


Elkarrizketatzailea: Zenbat daramazu errefortzu linguistikoa egiten?

DBH 4. mailako ikaslea: 2023ko irailaren amaieran hasi nintzen, zehazki hilabete horretako 21ean, osteguna zen. Beraz, lauzpabost hilabete.

E: Zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

I: Gehien gustatzen zaidana beste hizkuntza bat ikasten ari naizela da. Gainera, ikasten ari naizen hizkuntza ezberdina da, bakarra munduan. Gutxien gustatzen zaidana, aldiz, eskoletan eta taldeetan ezberdintasun maila handia dagoela da. Hau da, badagoela jendea zenbait urte daramatzana errefortzu linguistikoa egiten eta oraindik ez dela egokitutako mailara iritsi, beste batzuek, berriz, denbora laburra daramate eta nahiko maila ona dute.





E: Noiz duzu laguntza hau?

I: Euskara eskola dudanean izaten dut errefortzu linguistikoa, baina asteko egun batean ikasgelan geratzen naiz eta han egiten dut lan. Gainera, irakasleari galde-tu ahal diot edozein zalantza izanez gero.

Ondoren, errefortzu linguistikoa ematen duen irakasleetariko batek hainbat zalantza ebatzi dizkigu. Hasteko, ea euskara errefortzua irakasteko zer prestakuntza behar den. Berak esan digunaren arabera, euskararen ezagutza sendo eta sakona izatea garrantzitsua da, eta irakaskuntza-metodologiak ezagutzea ere bai. Horrez gain, gehien ikusten diren hobekuntzak zein diren galdetu diogu. Berak, batez ere, honako arloetan euren maila hobetzen dela esan digu: ahozko jarioan eta hiztegian, entzumen-ulermenean, gramatika akatsak murriztean eta elkarrizketan parte hartzeko gaitasunean. Amaitzeko, bere esperientzia pertsonalari buruz zerbait jakin nahi izan dugu, hori dela eta, errefortzu linguistikoa irakasten zenbat denbora daraman galdetu diogu eta aurren hasi dela esan digu.

E: Zerbait nabarmenduko zenuke errefortzu linguistikoari buruz?

I: Batez ere oso ondo dagoela esango nuke, eta benetan balio duela. Azken finean, euskara ez dakigunontzat laguntza jasotzeko eta ikasteko modua da eta gure ikaskideen maila izatera heltzeko edo hurbiltzeko aukera ematen digu.

E: Zein da zure helburua errefortzu linguistikoarekiko?

I: Nire helburua euskara hobeto ulertzea eta hitz egin ahal izatea da. Duela gutxi, ez nintzen elkarrizketa bat mantentzeko gai, bakarrik hitz batzuk ulertzeko, baina denborarekin gero eta errazagoa egiten zait eta momenturen batean hau guztiz lortzea gustatuko litzaidake. Euskarari dagokionez, 4 urteko salbuespena dut, beraz ikasketetarako ez dut horren beharrezkoa, baina nire iritziz ez duzu ezer galduko beste hizkuntza bat ikasteagatik.



GORANE AYESTA MAIDAGAN - GARABIDE ELKARTEA

EGILEAK: 2.A-Bko ikasleak

Aurten oso proiektu interesgarria ari gara egiten Unamuno Institutuaren eta Garabide elkartearen artean. Garabide elkarteko Gorane Ayesta da proiektuaren arduradun nagusia, eta galdera batzuk egingo dizkiogu egitasmoaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko.

Garabide elkartean ari zara lanean. Zer egiten du elkarte horrek?

Garabide Elkartea Gobernu Kanpoko Erakundea da, hizkuntza lankidetzara egiten duena; munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen ditu, euskararen biziberritze prozesuaren esperientziatik abiatuta. Hortaz, Garabidek zubi lanak egiten ditu hizkuntza gutxitudun komunitate ezberdinen (Kaqchikelak, Yukatango maiak, Nasak, Maputxeak...) eta euskalgintzakoen artean. Horretaz gain, Euskal Herrira begira aktibazio eta sentsibilizazio lana egiten du, esate baterako hezkuntza komunitateetan eta herrigintzan.

Nondik sortu zen proiektua egiteko ideia?

Hizkuntza gutxitu bat daukagu hemen, euskara, baina baditugu beste kultura eta hizkuntza asko ere. Zelan kudeatu aniztasun hori komunitate guztiekiko errespetuz jokatu? Garabide elkartean baditugu gure "betaurrekoak" eta esperientzia. Horietatik abiatuz urrats sorta bat eskaintzen dugu, ezagutza, motibazioa eta hausnarketa lantzen dituen urrats sorta.

Zenbat ikastetxetan ari zarete egiten? Zergatik aukeratu zenuten Unamuno Institutua?

Proiektua hiru ikastetxetan ari gara aurrera egiten, Bilboko Unamunon, Araiako Herri Eskolan eta Galdakaoko Eguzkibegi Ikastolan. Garabideren eta Unamunoren arteko harremana proiektuaren aurretik abiatu zen, eta, gaia lantzeko interes amankomunak ditugula ikusirik, gure proiektua aurrera eramateko testuinguru bikaina izan zitekeela pentsatu genuen.

Zeintzuk dira proiektuaren ezaugarri nagusiak?

Proiektu honek baditu hainbat puntu esanguratsu, esate baterako, komunitate indigenetatik iristen diren pertsonen egonaldia. Beste ezaugarri interesgarri bat ikastetxe mailan eta ikastetxea kokatzen den testuinguruan egin dugun ikerketa soziolinguistikoa da, Soziolinguistika Klusterrarekin. Horrek, hizkuntza aniztasunaren inguruan dauden jarreraren berri ematen digu hezkuntza komunitatearen partetik. Jardunaldi ludiko bat ere egingo dugu; Unamunoko ikasle talde batek munduko errezeten liburu bat osatzea erabaki du, eta beste batek ginkana jolas bat egingo du, hizkuntza gutxituak erdigunean dituen. Errezeta horiek sukaldatzeko eta ginkanara jolasteko aukera izango dugu.

Institutura bi indigena etorri zitzaizkigun. Aberasgarria izan zela uste duzu?

Zintzoki uste dut erabat aberasgarria izan zela, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat eta baita niretzat ere; estereotipoak gainditzeko oso aberasgarria izan zela uste dut. Aura Marina eta Luis Alberto, Guatemalako Kaqchikela lehena eta Kolonbiako Nasa bigarrena, bere hizkuntza, janzkera, tradizio, sinesmen sistema, istorio eta historia propioak partekatu zizkiguten, beste gauza askoren artean.

Erakusketa bat ere jarri zenuten. Zeri buruzkoa zen?

“Hizkuntza gutxituak ama lurra zaintzen” erakusketak munduko hamabi hizkuntza gutxituri buruzko informazioa eskaintzen du, tartean euskara. Hauen arrisku maila, hiztun-kopurua, hizkuntza horretako zenbait hitz, aurkezten dira batetik, eta, bestetik, kultura bakoitzarekin zer ikusia duen kontakizun bat aurkezten da. Erakusketak, kultura eta hizkuntza ezberdinen aniztasuna islatzen du, beste gauza askoren artean.

Zer gauza gehiago egingo dugu proiektuaren barruan?

Jada proiektuaren azken fasean gaude, eta, orain, ikasleak errezeta liburua eta ginkana bukatzen ari dira. Ondorengo hilabeteetan proiektuari amaiera emateko jardunaldi ludiko bat egingo dugu, non errezetak sukaldatzeko aukera eta ginkanara jolasteko aukera izango dugun, mokadutxo batez lagunduta.

Zein da zuen helburua? Guretzat baliagarria izango dela uste duzu? Eta, zuretzat?


Proiektu honekin lortu nahi duguna da hizkuntza aniztasuna balioan jartzea hizkuntza gutxituak erdigunean jarriz eta hauei leku berezia eginaz. Uste dut proiektua baliagarria dela hizkuntza eta kultura aniztasunaren aldeko jarrera positiboa sustatzeko eta ikasgelako aniztasunaren inguruko interesa apur bat areagotzeko. Niretzako erabat baliagarria eta interesgarria izaten ari da proiektua, izan ere, prozesuan ikasi dudana gain, ikasleekin hausnartzeko aukera izateak beraiek aniztasunaren eta euskararen gaia nola bizi duten ezagutu dezaket, proiektuak egokitzeko ezinbestekoa da.

Baduzue asmorik datozen urteetan ere antzeko zerbait egiteko?

Bai, orain ari gara datozen urteetarako proiektua sortzen. Proiektu berrian aurreko prozesuan ikasitakoa txertatu nahi dugu.

Eskerrik asko galderak erantzuteagatik, Gorane!

AURTEN BAI GURUTZEGRAMA



Ezkerretik eskuinera

2. Athletic-ek irabazitako saria.
4. Athletic taldearen kapitainaren abizena.
6. Itsasontzi berezia.
9. Futbol zelairik onena(espazio barik).
10. Athletic-eko koloreak(espaziobarik).

Goitik behera

1. Irabazitako kopa kopurua.
3. Atezain historikoa.
5. Finala jokatu zen zelaia(espazio barik).
7. Athletic taldearen entrenatzailea.
8. Athletic-ek finalean sartutako penalti kopurua.

9 DESBERDINTASUNAK



Ezkerretetik eskuinera

2. KOPA

4. MUNIAIN

6. GABARRA

9. SANMAMES

10. ZURIGORRI

Gotik behera

1. HOGEITABOST


3. IRIBAR

5. LACARTUJA

7. VALVERDE

8. LAU

Z U Z E N K E T A K



GARABIDE ELKARTEA



ELGERA

25

